


# **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

## **3. MAILA**

**2026/2027 IKASTURTEA**

### **MODULU LANERAKO IKASLEAREN GIDA**



## **K5 MODULUA**

### **GAITASUNAK EUSKAL CURRICULUMEAN**

Moduluaren koordinatzailea: Julen Maiztegi

# AURKIBIDEA

|                                                                    |           |
|--------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>1. SARRERA.....</b>                                             | <b>3</b>  |
| <b>2. MODULUAREN IKASGAIK ETA IRAKASLEAK .....</b>                 | <b>3</b>  |
| <b>3. MODULU-LANAREN AURKEZPENA.....</b>                           | <b>4</b>  |
| 3.1 Modulu-lana .....                                              | 4         |
| 3.2 Taldeen osaketa .....                                          | 5         |
| <b>4. HELBURUAK, KONPETENTZIAK ETA IRAKASKUNTZA EMAITZAK .....</b> | <b>5</b>  |
| <b>5. EGIN BEHARREKO LANA.....</b>                                 | <b>11</b> |
| 5.1 Ezaugarriak orokorrak .....                                    | 11        |
| 5.2 Metodologia .....                                              | 11        |
| 5.3 Lana egiteko orientazioak .....                                | 13        |
| 5.4 Kronograma eta lanaren faseak .....                            | 16        |
| <b>6. EBALUAZIOA .....</b>                                         | <b>18</b> |
| <b>7. OHAR GARRANTZITSUAK .....</b>                                | <b>21</b> |
| <b>8. BIBLIOGRAFIA .....</b>                                       | <b>21</b> |

## 1. SARRERA

Gida honetan, Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean irakasten den Haur Hezkuntzako graduko bosgarren moduluari, *Gaitasunak Euskal Curriculumean* izenekoari, dagokion diziplinarteko lana aurkezten da. Modulu hori Haur Hezkuntzako graduaren hirugarren maila osoan irakasten da.

*Gaitasunak Euskal Curriculumean* izeneko modulua irakasgai hauek osatzen dute: Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan II, Garapen Psikomotorra II, Musika Adierazpenaren Garapena II, Zientzia Esperimentalak Haur Hezkuntzako Ikasgelan, Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika, Hizkuntzaren didaktika eta Atzerriko hizkuntza, Hizkuntzaren eta Literaturaren didaktika eta Practicum II.

## 2. MODULUAREN IKASGAIK ETA IRAKASLEAK

| IRAKASLEA                         | IKASGAIA                                                | EMAILA                                                             | BULEGO A | TELEFONO A  |
|-----------------------------------|---------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------|----------|-------------|
| Javier Gasco                      | Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika              | <a href="mailto:javier.gasco@ehu.eus">javier.gasco@ehu.eus</a>     | 2.3.     | 945 014211  |
| Miriam Peña                       | Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan II | <a href="mailto:miriam.pena@ehu.eus">miriam.pena@ehu.eus</a>       | PDI02    | 945 013617  |
| Julen Maiztegi<br>(Koordinadorea) | Garapen Psikomotorra II                                 | <a href="mailto:julen.maiztegi@ehu.eus">julen.maiztegi@ehu.eus</a> | 1.3.     | 945 01 4178 |
| Nerea Barrena                     | Musika Adierazpenaren Garapena II                       | <a href="mailto:nerea.barrena@ehu.eus">nerea.barrena@ehu.eus</a>   | 1.9.     | 945 013442  |

| IRAKASLEA                                 | IKASGAIA                                                       | EMAILA                                                                                                                                           | BULEGO<br>A   | TELEFONO<br>A                 |
|-------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------|-------------------------------|
| Daniel<br>Zuazagoitia<br><br>Lur Moragues | Zientzia<br>Esperimentalak<br>Haur<br>Hezkuntzako<br>Ikasgelan | <a href="mailto:daniel.zuazagoitia@ehu.eus">daniel.zuazagoitia@ehu.eus</a><br><br><a href="mailto:lur.moragues@ehu.eus">lur.moragues@ehu.eus</a> | <br><br>B9    | 945 014195<br><br>945 01 4172 |
| Urtzi Reguero<br><br>Maite Garcia Ruiz    | Hizkuntzaren<br>Didaktika eta<br>Atzerriko<br>Hizkuntza        | <a href="mailto:urtzi.reguero@ehu.eus">urtzi.reguero@ehu.eus</a><br><br><a href="mailto:maite.garcia@ehu.eus">maite.garcia@ehu.eus</a>           | B11<br><br>B8 | 945 014210<br><br>945 01 4167 |
| Txabi Arnal                               | Hizkuntzaren<br>eta<br>Literaturaren<br>Didaktika              | <a href="mailto:javierignacio.arnal@ehu.eus">javierignacio.arnal@ehu.eus</a>                                                                     | B5            | 945 014193                    |

### 3. MODULU-LANAREN AURKEZPENA

#### 3.1 Modulu-lana

*Gaitasunak Euskal Curriculumean* Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduetako 5. modulua da. Hirugarren mailan irakasten da, ikasturte osoa hartzen du eta beheko grafikoan agertzen diren zortzi irakasgaiak hartzen ditu bere baitan.

| Konpetentzien lanketa eskolan                         |        |                         |                                | 3 HH  |
|-------------------------------------------------------|--------|-------------------------|--------------------------------|-------|
| Arte Plastikoak eta Ikuste Kultura haur Hezkuntzan II | 5 kr   | 8 kr                    | 8 kr                           | 6 kr  |
| Garapen Psikomotorra II                               | 5 kr   | PRACTICUM-EKO EGONALDIA | MODULO KO DISZIPLINARTEKO LANA | 6 kr  |
| Musika Adierazpenaren Garapena II                     | 5 kr   |                         |                                | 6 kr  |
| Zientzia Esperimentalak Haur Hezkuntzako Ikasgelan    | 5 kr   |                         |                                | 6 kr  |
| Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika            | 5 kr   |                         |                                | 6 kr  |
| Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza        | 7,5 kr |                         |                                | 9 kr  |
| Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika              | 7,5 kr |                         |                                | 9 kr  |
| Practicum II                                          | 2 kr   |                         |                                | 12 kr |

### 3.2 Taldeen osaketa

Lana taldeka egingo da, lau kidez osatutakoa.

## 4. HELBURUAK, KONPETENTZIAK ETA IRAKASKUNTZA EMAITZAK

Haur Hezkuntzako Graduako 3.mailako talde txikietan (4 kide) banatutako ikasleek, beraien interesetatik abiatuta, lan proiektu bat egingo dute. Horretarako, ikasgai bakoitzean landutakoak mobilizatu eta horien arteko loturak ezarri beharko dira.

Modulu honetan, gaitasunen araberako curriculumaren planteamendua, garapena eta ebaluazioa eta planteamendu horrek eragiten dituen aldaketa metodologikoak jorratuko dira:

1. Lan Proiektu ikuspegia modu teoriko-praktiko batean zer den ikastea
2. Hausnartu zelako transferentzia egon daitekeen lan proiektuen metodologiari buruz ikasitakotik Haur Hezkuntzako Curriculumera

Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, Gaitasunak Euskal Curriculumean izeneko 5. moduluan, Practicum II irakasgaiaz gain, sei ECTS kredituko bost irakasgai eta bederatzi ECTS kredituko bi irakasgai daude. Moduluko lanak irakasgai bakoitzerako ECTS kreditu bateko balioa izango du modulu bakoitzean parte hartzen duten sei kredituko bost irakasgaietan, eta 1,5 ECTS kredituko balioa bederatzi kredituko bi irakasgaietan. Hau da, moduluko lanak zortzi ECTS kredituko balio osoa izango du, eta ikasturte osoan landuko da, kronograman azaltzen den moduan.

Ikasleentzako lan karga hamar ordu bertaratzeko eta 15 ordu ez bertaratzeko izango dira sei kredituko irakasgai bakoitzean, eta 15 ordu bertaratzeko eta 22,5 ez bertaratzeko moduluko bederatzi kredituko irakasgai bakoitzean. Horrek esan nahi du taldeko pertsona bakoitzak laneko 80 ordu bertaratzeko eta 120 ordu ez bertaratzeko izango dituela. Practicum irakasgaia grafikoan sartu dugu, moduluan garatu beharreko proiektua Practicum II irakasgaiarekin lotu behar dugula / lotu dezakegula gogorarazteko. Hala ere, horrek ez du nahitaez horrela izan behar: antolaketa-faktoreen eta proposamen horrek ikastetxeetan duen harreraren arabera izango da.

Kredituei dagokienez, eskainitako arduraldiaren laburpena ondoko taulan ikusi daiteke:

|                       | Bertaratzeko orduak    | Ez bertaratzeko orduak     | GUZTIRA         |
|-----------------------|------------------------|----------------------------|-----------------|
| Bost Irakasgai 6 ECTS | 5x10 = 50 ordu         | 5x15 = 75 ordu             | 125 ordu        |
| Bi Irakasgai 9 ECTS   | 2x15 = 30 ordu         | 2x22,5 = 45 ordu           | 75 ordu         |
| Orduak GUZTIRA        | 80 ordu bertaratzekoak | 120 ordu ez bertaratzekoak | <b>200 ordu</b> |

Konpetentziei dagokionez, modulu honetan ondokoak jorratuko dira:

C2.- Irakaskuntzara bideratutako baliabide eta estrategia didaktikoak banaka eta taldean aztertu eta konparatzea, eta aldi berean komunikazioaren eta informazioaren teknologiak erabiltzea.

C3.- Etapa honetako esperientzia eremuetarako proposamen didaktikoak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea, praktikaren arazoei eta erronkei buruz gogoeta eginez,

ikasleen hezkuntza beharrianak, genero-berdintasuna, kultura-aniztasuna eta giza eskubideak artatzea xede izanda.

C4.- Komunikazioaren eta adierazpenaren trebetasunak hobeto menderatzea.

Bestalde, moduluko lanean inplikaturako irakasgaien gaitasunak eta edukiak ondokoak dira:

|                                                                                                                                                             |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>ARTE PLASTIKOAK ETA IKUSIZKO KULTURA HAUR HEZKUNTZAN II</b>                                                                                              |
| <b>IRAKASGAIKO GAITASUNAK</b>                                                                                                                               |
| A) Haur Hezkuntzako curriculumaz aztertzea                                                                                                                  |
| B) Arte hezkuntzari eta ikusizko kulturari buruzko gaur egungo ikerketak ezagutu eta haurtzaroko arte ikaskuntzari buruzko teoriak modu kritikoan aztertzea |
| C) Arte hezkuntzan estrategia sortzaileak erabiltzen dituzten praktikak identifikatzea                                                                      |
| D) Haur Hezkuntzara egokitutako jarduera proiektuak diseinatzea curriculum ikerketa gaurkotua oinarri hartuta                                               |

1. GAIA.- Arloko curriculum erreferentziak. Orientazio didaktikoak.
2. GAIA.- Ikusizko Kultura haurren esparruan.
3. GAIA.- Baliabide kontzeptual, tekniko, metodologiko eta sortzaileak haurren mailara egokituta
4. GAIA.- Estrategia sortzaileak
5. GAIA.- Haurren mailara egokitutako jarduera-proiektuak diseinatzea curriculum ikerketa gaurkotutik.

|                                                                                                                                                        |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>GARAPEN PSIKOMOTORRA II</b>                                                                                                                         |
| <b>IRAKASGAIKO GAITASUNAK</b>                                                                                                                          |
| A) Jolasa garapen psikomotorraren baliabide didaktiko moduan erabiltzen jakitea eta jolas printzipioetan oinarritutako ikaskuntza ariketak diseinatzea |

1. GAIA.- Hurbilketa teorikoa esku-hartze eredura.
2. GAIA.- Orientazio didaktikoak garapen psikomotorrari buruz.
3. GAIA.- Hezitzailearen jarreraren sistema.
4. GAIA.- Hezkuntza ekintzaren ebaluazioa eta analisia.
5. GAIA.- Garapen psikomotorraren behaketa.

|                                          |
|------------------------------------------|
| <b>MUSIKA ADIERAZPENAREN GARAPENA II</b> |
|------------------------------------------|

|                                                                                                                                                      |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>IRAKASGAIKO GAITASUNAK</b>                                                                                                                        |
| A) Jolasa musika adierazpenaren baliabide didaktiko moduan erabiltzen jakitea eta jolas printzipioetan oinarritutako ikaskuntza ariketak diseinatzea |
| B) Musika hautematea eta adierazpena, trebetasun motorrak eta sormena sustatzen dituzten proposamen didaktikoak egitea                               |

1. GAIA.- Abestia eta haurren errepertorioa
2. GAIA.- Musika eta jolasa
3. GAIA.- Musika asmakuntza
4. GAIA.- Baliabide didaktiko-musikalak haurren etapan
5. GAIA.- Musika Haur Hezkuntzako curriculumean.

|                                                                                                                                                                    |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>ZIENTZIA ESPERIMENTALAK HAUR HEZKUNTZAKO IKASGELAN</b>                                                                                                          |
| <b>IRAKASGAIKO GAITASUNAK</b>                                                                                                                                      |
| C) Proposamen didaktikoak egitea Haur Hezkuntzan pentsamendu zientifikoa garatzeko estrategia didaktiko desberdinak aztertuz eta baloratuz                         |
| D) Inguru natural, sozial eta kulturalaren aldeko interesa eta errespetua sustatzea Zientzia Esperimentalei lotutako proiektuak eta proposamen didaktikoak eginda. |

4. GAIA.- Estrategiak eta baliabide didaktikoak inguru fisiko eta naturalaren irakaskuntza/ikaskuntzarako.
5. GAIA.- Sekuentzia didaktikoak diseinatzea.

|                                                                                                                                                  |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>PENTSAMENDU MATEMATIKOA ETA BERE DIDAKTIKA</b>                                                                                                |
| <b>IRAKASGAIKO GAITASUNAK</b>                                                                                                                    |
| B) Zenbakizko adierazpenak eta adigai espazialak, geometrikoak eta garapen logikokoak garatzeko estrategiak eta baliabide didaktikoak ezagutzea. |
| C) Matematika ezagutza soziokultural moduan ulertzea.                                                                                            |
| D) Inguru natural, sozial eta kulturalaren aldeko interesa eta errespetua sustatzea proiektu didaktiko egokien bidez.                            |

1. GAIA.- Matematikaren Didaktikako alderdi orokorrak.
2. GAIA.- Pentsamendu logiko erlazionala eraikitzea.
3. GAIA.- Zenbakizko pentsamendua eraikitzea.
4. GAIA.- Pentsamendu espaziala eraikitzea.
5. GAIA.- Magnitudea eta neurria.

|                                                       |
|-------------------------------------------------------|
| <b>HIZKUNTZAREN DIDAKTIKA ETA ATZERRIKO HIZKUNTZA</b> |
|-------------------------------------------------------|

|                                                                                                                                                                  |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>IRAKASGAIKO GAITASUNAK</b>                                                                                                                                    |
| A) Etapa honetako komunikazio trebetasunei buruzko eskolako curriculumaren atalak ezagutzea, baita trebetasunak eskuratzeari eta garatzeari buruzko teoriak ere. |
| C) Atzerriko hizkuntza batera lehen hurbilketa sustatzeko gai izatea                                                                                             |

## HIZKUNTZAREN DIDAKTIKA

1. GAIA.- Hizkuntzak Haur Hezkuntzako curriculumean.
2. GAIA.- Komunikazioaren garapena lehen urteetan familia eta eskola inguruetan.
3. GAIA.- Ahozketasunaren ezaugarriak. Ulermena eta ahozko adierazpena H1 eta H2n.
4. GAIA.- Ahozko diskurtso generoak Haur Hezkuntzan.
5. GAIA.- Irakaskuntza estrategiak ahozko hizkuntza eskuratu eta garatzeko H1 eta H2n. Hezkuntza egoerak eta ariketak.

## ATZERRIKO HIZKUNTZAREN DIDAKTIKA

### 1. Atzerriko hizkuntza Haur Hezkuntzan:

#### 1.1. Egitura alderdiak:

- Atzerriko hizkuntzak EAEko hezkuntza sisteman.
- Atzerriko hizkuntzen irakasleak.
- Atzerriko hizkuntzen ikasleak Haur Hezkuntzan.

#### 1.2. Alderdi metodologikoak:

- Ikuspegi metodologikoak atzerriko hizkuntza irakasteko Haur Hezkuntzan. Edukien eta hizkuntzaren ikaskuntza integratua (CLIL).
- Baliabide didaktiko batzuen erabilera: ipuinak, abestiak, errimak, jolasak. IKT.

|                                                                                                                                                                                                             |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>HIZKUNTZAREN DIDAKTIKA ETA LITERATURA</b>                                                                                                                                                                |
| <b>IRAKASGAIKO GAITASUNAK</b>                                                                                                                                                                               |
| B) Irakurketaren eta idazketaren eta horien irakaskuntzaren ikaskuntza prozesuak ezagutzea eta sekuentzia didaktikoak diseinatzea ahozko eta idatzizko hizkuntza garatzeko Haur Hezkuntzako ikasleen artean |

C) Ahozko hizkuntzaren eta ahozkoa ez den hizkuntzaren erabilera egokia aitortu eta baloratzea eta hizkuntzen eta horien irakaskuntzaren aldeko jarrera positiboak garatzea

2. GAIA- Idatzizko hizkuntza Haur Hezkuntzako geletan

11. GAIA- Idatzizko eta ahozko haur literatura gelan

## 5. EGIN BEHARREKO LANA

### 5.1 Ezaugarriak orokorrak

Lana guztira 5 faseetan banatuko da.

### 5.2 Metodologia

- **LAN-PROIEKTUAK\_Marko teoriko bat sortu\_1.FASEA**

Proposatutako **dokumentaziotik abiatuta**, ikasleek lan-proiektuei buruzko marko teoriko bat osatu beharko dute, Haur Hezkuntzako etapan erabili daitekeen metodologia edota ikuspegi hau ezagutzeko bidea izanik. Dokumentazioaren azterketatik eta sortutako eztabaidetatik honako galderei erantzutea lagungarria izango da marko teoriko berri hori osatzen joateko.

1. Zer dira lan proiektuak? Egile, erreferentzia eta bilakaera historikoa hezkuntzan
2. Lan-proiektuak ulertzeko modu ezberdinak
3. Lan-proiektuen FASEAK abiapuntua, garapena eta amaiera
4. Irakasleen jarduna: Nola jardun behar du irakasleak lan-proiektuetan? Zein da bere papera eta bere izaera, nola ulertzen dute lan-proiektuek irakaslearen lana?
5. Ikasleen jarduna: Zein da ikaslearen papera? Nola begiratzen diete lan-proiektuek ikasleei?
6. Familiak: Nolakoa da familien parte-hartzea lan-proiektuetan?
7. Testuingurua: Ikasle taldea, baliabideak, komunitatea, ingurua, erakundeak edota eragileak eta denboraren kudeaketa.

- **LAN-PROIEKTUA\_Interes gaia aukeratu eta ikerketa abian jarri\_2.FASEA**

Lan-proiektua abiatzeko galdera eragile hauek erabili daitezke. Zuek izango zarete lan-proiektu honen egileak eta **bizitza errealean esperimentatu beharko duzue**:

1. Nola identifikatzen ditugu zeintzuk diren "gure interesak"? Eta gure taldekoak? Edo nola egin komunak?
2. Nola bilakatu interes hori ikerketa gai.

- LAN-PROIEKTUA\_Informazioa bilatu eta esperimentatzen hasi\_3.FASEA

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>GARAPENA</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <p><b>Zer dakigu?</b></p> <p>Jorratuko den gaiari buruzko ikuskerak elkarbanatzeko unea da. Hasierako lanketa horretan ikaskuntza beharrianak agerian geratu eta ikasi nahi dugun horretan zehaztuko dira.</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <p><b>Zer jakin nahi dugu?</b></p> <p>Aurretiazko ideiak esplizitu egin ondoren, modu jakin batean interpretatu eta antolatu behar ditugu. Beraz, atal honetan honako hauek hartuko ditugu kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Proiektuaren bidez garatu behar diren oinarritzko gaitasunak.</li> <li>• Bete beharreko edukiak.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                             |
| <p><b>Nola jakin dezakegu?</b></p> <p>Fase honetan, jarduerak planifikatzen eta diseinatzen dira. Beraz:</p> <p><b>A) Proposatutako ikerketa galdera erantzuten eta garatzen laguntzen duten <b>BOST JARDUERA</b> sortu:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazioa bilatzea: iturriei buruzko adostasuna lortu, nola antolatu, informazioa bilatzeko teknikak (elkarrizketak, bisitak, kontsultak...).</li> <li>• Informazioa erabiltzea: baloratu, konparatu, eskemetan jaso ...</li> <li>• Behatzea eta zuzenean esperimentatzea.</li> <li>• Irudikatzea (komunikazioa).</li> </ul> |

**B) Jardueren garapenaren deskripzioa eta erregistroa:** jarduera horien garapenaren deskripzioa egin behar da, erabilitako prozedura metodologikoak/esku hartzeko moduak barne hartuta.

**LAN-PROIEKTUA\_Proposamena amaitu eta bide berriak  
aztertu\_4.FASEA**

A) Nolako lotura egon daiteke zuen lan-proiektuaren eta Haur Hezkuntzako kompetentzien artean.

B) Hausnarketa librea eta benetakoa.

- **LAN-PROIEKTUEN**

**TOPAKETA\_Erakusketa/ekoizpena/eztabaida\_5.FASEA**

Prozesuan zehar ikasitakoa biltzen duen eta zuen ikaskideei azaltzeko balioko duen ekoizpen bat aurkeztu beharko da bukaeran. Maiatzaren 6an, beste lan-proiektuak ezagutzeko asmoz TOPAKETA bat egingo da. Erakusketa formatuak, ateak irekiak izango ditu ekoizpen ezberdinak ikusteko eta espazio berdinean dauden lan-proiektuen gaineko prozesua ezagutzeko. Aldi berean, koebaluaziorako gidoi bat erabiliko dugu.

**5.3 Lana egiteko orientazioak**

Moduluan parte hartzen duten irakasle guztiek ataza hauek egin behar dituzte:

1. Moduluko lana diseinatu, ezarri eta ebaluatzea.
2. Ikasleei moduluko lanaren diseinua azaltzea.
3. Gaia hautatzean eta baliabide didaktikoak bilatzen orientatzea.

4. Kasuan kasuko atazak egite aldera informazioa bilatzeko erremintak ematea, arlo bakoitzeko ezagutzak eskuratzera eta gaitasunak garatzera orientatuta.
5. Moduluko lan prozesua gainbegiratzea, gutxienez lantalde bakoitzarekin egindako hiru tutoretza saiotan (hasieran, erdian eta lana amaitzean). Lantalde bakoitzak moduluko irakasle bat izango du tutore.
6. Moduluko lanak egiteko prozesua koordinatzea.
7. Moduluko lanaren idatzizko txostena ebaluatzea, errubrikan ezarritako eta ikasleei emandako irizpideen arabera.

Diziplinarteko lana bertaratzen diren ikasleentzat planteatzen da, gutxieneko asistentzia eta eskatutako inplikazioa betetzen dituztenentzat. Hala ere, ikasle guztiek diziplinarteko lanari buruzko ezagutzak erakusteko gaitasuna lortu behar dute; beraz, gogoan izan behar dugu bertaratzen ez diren ikasleek diziplinarteko lanari buruzko galderei irakasgai bakoitzean erantzun beharko dietela. Jarraian, bertaratzen diren eta bertaratzen ez diren ikasleentzat esanguratsuak izan daitezkeen atazak aipatuko ditugu:

- Harrera ekitaldian parte hartzea; modu horretan, moduluaren aurkezpena, irakasleen taldea eta moduluko lanaren planteamendua ezagutuko dituzte.
- Moduluko gida kontsultatzea.
- Bertaratzen ez den ikaslea izanez gero, Gomendioen gutunean jasotako oharrei jarraituz, lehen hilabetea irakasgai bakoitzeko irakaslearen bulegora joatea.
- Tutoretzetan parte hartzea.
- Aurkeztutako lan guztiek aurkezpenari lotutako alderdi formal hauek bete behar dituzte:
  - Letra mota: Times New Roman. Testu nagusia, 12 puntu; taulak, 10 puntu.
  - Lerro-arte: 1,5.
  - Paragrafoen antolaketa: justifikatuta beti, paragrafoaren hasieran 1,25eko koskarekin.
  - Lanaren luzera: gehienez 20 orrialde, azala, eranskinak eta bibliografia kanpoan utzita.
  - Orriak zenbatuta (lanaren azala salbu).
  - Bi aldetatik inprimatuta, DIN A4an.
  - Formatu digitala: pdf.
  - Aipamen bibliografikoak: APA arauen azken edizioari jarraitu behar zaio.
- Lanaren egitura ondokoa izango da:

## **SARRERA**

Lanaren kokapena graduan, ezaugarri orokorrak, txosten idatzian jasotakoaren laburpena.

### **1. LAN PROIEKTUEN MARKO TEORIKO BAT**

#### **1.1. Zertaz ari gara lan-proiektuetaz ari garenean?**

#### **1.2. Oinarri zientifikoa eta metodologikoa**

- Erreferenteak eta nola antolatu curriculum lan-proiektuak eskolan. Zertarako?
- Proiektuen bidezko metodologiaren oinarri diren iraka-ikaskuntza printzipioak.

#### **1.3. Nola ulertzen ditu lan-proiektuak:**

- Irakasleen jarduna.
- Ikasleen jarduna.
- Familiak.
- Testuingurua.

### **2. LAN PROIEKTU BATEN GARAPENA ETA URRATSAK**

#### **2.1. Gaia edo interesaren abiapuntua**

- Galderak eta ikerketaren oinarriak.
- Zer dakigu gai horren inguruan?
- Zer gehiago jakin nahi dugu?
- Nola jakin dezakegu?

#### **2.1. Informazioa, jarduerak eta esperientzia garatu**

- Iturri ezberdinetara jo.
- Jarduerak egin eta denboran antolatu, sekuentzia bat.

- Esperientziaren erregistroa egin.
- Nolako gaitasunak eta edukiak garatzen diren deskribapena.

### 2.3. Zer ikasi dugu?

- Abiatzen garen galderatik iritsi garen ibilbidean egindako ikasketak, hausnarketak, tentsioak eta irekitako esparru edota interes berriak.
- Lan Proiektua erakutsi eta prozesua zein emaitzak konpartitu.

### 3. LAN PROIEKTUAK HAUR HEZKUNTZAN

- Haur Hezkuntzako etapan birkokatu.
- Curriculumera egokitzeko gakoak.

### 4. ONDORIOAK

- Ikaslearen begiradatik nola ikusten duzu egindako lan-proiektua? Eta irakaslearen begiradatik?
- Lanaren baliagarritasun profesionala
- Egindako lanari buruzko balorazioa

### 5. BIBLIOGRAFIA ETA INTERNETGRAFIA

### 6. ERANSKINAK

#### 5.4 Kronograma eta lanaren faseak

| ESKOLA ASTEAK             | MODULUKO DATA KOMUNAK |
|---------------------------|-----------------------|
| 1. Astea<br>IX-8tik 12ra  | MODULUAREN AURKEZPENA |
| 2. Astea<br>IX-15tik 19ra |                       |

|                                                      |                                                                                                            |
|------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 3. Astea<br>IX-22etik 26ra                           | TALDEAK EGITEA                                                                                             |
| 4. Astea<br>IX-30etik X-3ra                          |                                                                                                            |
| 5. Astea<br>X-6tik 10era                             | TUTOREAREKIN HARREMANETAN JARTZEA.<br>TUTOREAREKIN BILTZEA ETA LANAREN 1. FASEAREKIN HASTEA.               |
| 6. Astea<br>X-13tik 17ra                             |                                                                                                            |
| 7. Astea<br>X-20etik 24ra                            |                                                                                                            |
| 8. astea<br>X-27tik 31ra                             | <b>1. FASEKO DOKUMENTUA TUTOREARI ENTREGATZEA</b>                                                          |
| PRACTICUM II<br>azaroaren 3tik abenduaren 19ra       |                                                                                                            |
| NEGUKO OPORRAK<br>abenduaren 22tik urtarrilaren 21ra |                                                                                                            |
| 16. Astea<br>I-22tik 23ra                            | <b>1. FASEKO DOKUMENTUARI BURUZKO FEEDBACK.</b><br>TUTOREAREKIN BILTZEA ETA LANAREN 2.-3.FASEAREKIN HASTEA |
| 17. Astea<br>I-26tik 30ra                            |                                                                                                            |
| 18. Astea<br>II-2tik 6ra                             |                                                                                                            |
| 19. Astea<br>II-9tik 13ra                            | <b>2.-3. FASEKO DOKUMENTUA TUTOREARI ENTREGATZEA</b>                                                       |
| 20. Astea<br>II-16tik 20ra                           |                                                                                                            |
| 21. Astea<br>II-23etik 27ra                          | 2.-3. FASEKO DOKUMENTUARI BURUZKO FEEDBACK EMATEA.<br>4. FASEAREKIN HASI.                                  |

|                                                                  |                                                                                                          |
|------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 22. Astea<br>III-2tik 6ra                                        |                                                                                                          |
| 23. Astea<br>III-9etik 13ra                                      |                                                                                                          |
| 24. Astea<br>III-16tik 20ra                                      |                                                                                                          |
| 25. Astea<br>III-23etik 27era                                    | <b>4. FASEKO DOKUMENTUA TUTOREARI ENTREGATZEA.</b><br><b>5. FASEA PRESTATZEN HASI.</b>                   |
| 26. Astea<br>III-30tik IV-1ra                                    |                                                                                                          |
| UDABERRIKO OPORRAK: apirilaren 2tik apirilaren 10ra (biak barne) |                                                                                                          |
| 27. Astea<br>IV-13tik 17ra                                       |                                                                                                          |
| 28. Astea<br>IV-20tik 24ra                                       |                                                                                                          |
| 29. Astea<br>IV-27tik 30era                                      |                                                                                                          |
| 30. Astea<br>V-4etik V-8ra                                       | <b>5. FASEA MODULU TOPAKETAK (ERAKUSKETA+EZTABAIDA)</b><br><b>MODULU LANAREN ENTREGA (behin betikoa)</b> |
| 31. Astea<br>V-11tik 15ra                                        |                                                                                                          |

## 6. EBALUAZIOA

Ebaluaziorako bi modalitate egongo dira:

- **Etengabeko ebaluazioa egiten duten ikasleentzat**
  - Kronograma xehatua izango dute, moduluko gidan zehaztua datorrena.
  - Talde Lan-proiektu hori lau ikasleko taldeetan egingo da (irakasle taldeak onartutako salbuespenak salbuespen, eta beti ere arrazoi zehatzak tarteko).
  - Moduluko lanaren kalifikazioa irakasgaiko kalifikazioaren 1/5 (2 puntu) izango da. Kalifikazio hori moduluko irakasleek adostuko dute, eta diziplina bakoitzeko ebaluazioari batuko zaio.

## Balitzko egoerak 2. deialditik aurrera

- *Moduluko lana suspendituta eta irakasgaia gaindituta*: irakasgai bakoitzeko irakasleek erabakitzen dute moduluko lana irakasgaia gainditzeko giltzarria den ala ez.
- *Moduluko lana gaindituta eta irakasgaia suspendituta*: moduluko lanaren emaitza gordeko da bi ikasturtez.
- *Moduluko lana eta irakasgaia, biak suspendituta*: 2. deialdiko azterketan, irakasgaiko ebaluazioz gain, moduluko lanean hobetu daitezkeen alderdiak edo edukiak berriz egin beharko dira (beti ere, irakasgaiaren irakasleek ezarritako ebaluazio moduari jarraituz).

- **Azken ebaluazioaren sistema egiten duten ikasleentzat**

- Moduluari buruzko proba edo lan zehatzen bidez ebaluatuko dira. Proba horiek irakasgai bakoitzeko irakasleek zehaztuko dituzte kasu bakoitzean. Ikaslearen zeregina izango da irakasgai bakoitzeko irakasleekin harremanetan jartzea, hauek K5ari dagokion ebaluazio modua zertan den informazatzen.
- Moduluko lanari buruzko proba edo lanek gehienez bi puntu lortzeko aukera emango dute (irakasgaiko emaitzaren 1/5).

- **Moduluko lanaren kalifikazioa**

- Txosten idatziak notaren %80 balioko du
- Topaketako taldeen arteko ko-ebaluazioa notaren %20 balioko du
- Ezinbestekoa izango da atal guztiak aprobatzea: Lan-proiektuaren txostena eta Topaketetan parte-hartzea (ekoizpena, ko-ebaluazioa, eztabaida).

- **Topaketa/Erakusketaren ko-ebaluaziorako egiteko oinarritzko argibideak**

- Erakusketa formatoan egingo da.
- 10-15 minutuko iraupen aurreikusten da (irakasle taldeak besterik adierazi ezean). Ondoren, tarte zabalduta zaie beste ikasleentz zein irakasleentz galderei.

- Taldeek beste taldeen aurkezpenetan egon behar dute.
- Topaketa/Erakusketan derrigor azaldu beharrekoak (nahi den ordenan): taldea, lan proiektuaren nondik norakoak eta azken produktuaren argudiaketa.

## 7. OHAR GARRANTZITSUAK

Zalantza gehiago argitzeko, Moduluetako Akordioen Gida irakurri behar da:

<https://www.ehu.eus/documents/5299588/5638011/MODULUETAKO+AKORDIOEN+GIDA+%282021eko+ekainaren+15ean+eguneratua.pdf/ff3d4294-3618-d1ac-1711-2fa39b186f5c?t=1629876729992>

## 8. BIBLIOGRAFIA

### DERRIGORREZKOA

#### LIBURUAK

Hernández, F. eta Ventura, M. (2010). *Curriculum a lan proiektuen bidez nola antolatu*, pp. 91-117. EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Hernández, F. (2007). *Espigador@s de la Cultura Visual. Otra narrativa para la educación de las*

*Artes*, pp. 75-99. Octaedro.

Olivares, M.A., González, M.E., Mérida, R. (2016). *Otra forma de hacer escuela. Escuchar las voces del alumnado a través de los Proyectos de Trabajo*, pp. 15-29. Editorial Pirámide.

#### ARTIKULUAK

Sanmartí, N. y Márquez, C. (2017). Aprendizaje de las ciencias basado en proyectos: del contexto a la acción. *Ápice. Revista de Educación Científica*, 1(1), 3-16.  
<https://doi.org/10.17979/arec.2017.1.1.2020>

#### BIDEOAK e-gelan eskuragarri

- Nekane Otsoa. EHU TB. ARABAKO CAMUSEAN 2018.
- Estitxu Aberasturi, GIPUZKOAKO CAMPUSEAN 2014an antolatutako jardunaldiak: La perspectiva de los Proyectos de Trabajo en Educación Infantil. La experiencia práctica en las escuelas y en Educación Infantil

### OSAGARRIA

AAVV. (2001). *Investigando en la escuela: Los proyectos de trabajo. Aula Infantil*, 1.

- Algàs, P. (koord.) (2010). *Los proyectos de trabajo en el aula: reflexiones y experiencias prácticas*. Graó.
- Antzuolako Herri Ikastetxea. (2000). Ikaslearen osotasunari erantzuteko proposamen bat: proiektuak. *Hik Hasi, Udako Topaketa Pedagogikoak*, 8-13.
- Arias Correa, A., Arias Correa, D., Navaza Blanco, M. V. eta Rial Fernández, M. D. (2009). *O traballo por proxectos*. Xunta de Galicia. Eskuragarri hemen: [https://www.edu.xunta.es/ftpserver/portal/DXC/9002463-Proxectos\\_Web.pdf](https://www.edu.xunta.es/ftpserver/portal/DXC/9002463-Proxectos_Web.pdf) [Kontsulta eguna: 2020/09/04].
- Arregi, X. (2009). Zertaz ari gara proiektuen bidezko metodologia aipatzen dugunean? Zein dira metodologia horren ezaugarriak? Eta abantailak? *Hik hasi*, 130, 30-32.
- Díez Navarro, C. (1998). *La oreja verde de la escuela* (2. ed.). Ediciones de la Torre.
- Domínguez Chillón, G. (2013). *Proyectos de trabajo. Una escuela diferente* (3. ed.). La Muralla.
- Elizburu, R. eta Etxeberria Uribesalgo, A. (1999). Las jirafas. Un proyecto de trabajo. *Infancia*, 58, 28-29.
- González Alfaya, M. E., Mérida Serrano, R. eta Olivares García, M. A. (koord) (2016). *Los proyectos de trabajo: Tejiendo sueños, construyendo vida en la escuela infantil*. Pirámide.
- La Cueva, A. (1998). La enseñanza por proyectos: ¿mito o reto? *Revista Iberoamericana de Educación*, 16, 165-190, eskuragarri hemen: <https://rieoei.org/historico/oeivirt/rie16a09.pdf> [Kontsulta eguna: 04/09/2020].
- López de Sosoaga López de Robles, A., Ugalde Gorostiza, A. I., Rodríguez Miñambres, P. eta Rico Martínez, A. (2015). La enseñanza por proyectos: una metodología necesaria para los futuros docentes. *Opción*, 31(1), 395-413, eskuragarri hemen: <http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=31043005022> [Kontsulta eguna: 04/09/2020].
- Luna, F. (2008). El alumnado decide qué se va a trabajar. El trabajo por proyectos en el CEP Arrankudiaga LHI. *Cuadernos de Pedagogía*, 384, 20-25.
- Majó Masferrer, F. (2010). Por los proyectos interdisciplinares competenciales. *Aula de Infantil*, 57, 5-10.
- Majó Masferrer, F. eta Baqueró Alòz, M. (2014). *8 ideas clave. Los proyectos interdisciplinarios*. Graó.

Martín, M. J., Gimeno, P. eta Algás, P. (2003). Los proyectos de trabajo. El espacio exterior. *Aula de Infantil*, 14, 14-18.

Notivol Gracia, M. (1988). Trabajar por proyectos. *Cuadernos de Pedagogía*, 267, 23-26.

Salas, C. eta Ribalta, R. M. (1997). Projecte de treball al parvulari: El bosc. *Guix*, 238, 65-71.

Sanmartí, N. eta Tarín, R. (2008). Proyectos y actividades para cambiar el entorno. *Aula de Infantil*, 44, 5-7.

Sanmartí, N. (2016). Trabajo por proyectos: ¿filosofía o metodología? *Cuadernos de Pedagogía*, 472, 44-46.